
20 37


IÑURRIZAKO BIOTOPOA



Iñuritza ibaiak 5 km-ko luzera eta 20 km2-ko arroa dauka soilik, eta Zarautz hondartzaren ekialdeko muturrean itsasoratzen da. Bere amaierako zatiak –itsasadar moduan- Talaimendi itsaslabarrarekin, dunen gunearekin eta bere hondartza sektorearekin batera, izen bereko babestutako Biotopoa sortzen du. Horrek bere babesa eta erabilerak araupetzen dituen Plan Berezi bat dauka, 2006. urtean ontzat emana.

Biotopoak babestutako azalerak (513.000 m2) ez du bat egiten ZEC (Kontserbazio Zonalde Espaziala) ES 2120009 Iñurritza guneko azalerarekin. Azken horren eremua Biotopoaren mugetatik haratago zabaltzen da, beste partzela txikiez gain, Aia udalerriko itsaslabarreko zatia barne. Hala ere, Babestutako Biotopoaren barruko lurralde guztiak ZEC Iñurritza zonaldeko eremuaren barne daude. Biotopoak 401.000 m2-ko babes eremu bat dauka.

Bertan hondartza eta dunaren zonaldea nabarmentzen da. Azken horren gainean golf zelai bat dago. Erabilera hori nahiko eztabaidagarria da, baina horri esker ez da dunaren zonalde hau urbanizatu eta horrenbestez, gaur egun bere horretan kontserbatzen da. Horrez gain, padurako sektore txiki bat hartzen du barne, biotopoaren hegoaldean, eta baita Talaimendi itsaslabarrak ere, Mollari irla txikia barne, Asteasu udalerritik iristen zen minerala kargatzeko tokiaren eta teleferikoaren aztarnekin. Bai duna eta bai padura eta itsaslabarrak dira mota honetako eraketak sortzen dituzten baldintza zehatzetara egokitutako faunetarako eta floretarako habitat garrantzitsu bat.



Ortoargazkia 2015. Iturria: Eusko Jaurlaritza-G. Vasco; geoEuskadi. Iñurritza Biotopo babestuaren mugak. UTM 30N ETRS89 // X: 568663 m // Y: 4793369 m. Txertatzea: 1. Biotopoa. 2. Babes zonaldea.



Iñurritza ibaiaren itsasoratzea. Eskuinean dunen zonaldeko babes harresiak ikusten dira. Argazkiaren ezkerraldean itsaslabarren zonaldea aurkituko litzateke eta atzealdean, berriz, paduren zonaldea.



Ortoarg. 2015. Iturria: E. Jaurlaritza-G. Vasco; geoEuskadi. Golf zelaiaren ikuspegi partziala, dunaren gainean ezarrita.



Ortoargazkia 2015. Iturria: Eusko Jaurlaritza-G. Vasco; geoEuskadi. Padurako sektorea.